

## “Beharrezkoa da animaliekin esperimentatzea”

Juan  
Lerma

Espainiako Elkarte  
Zientifikoaren  
Konfederazioko  
lehendakaria

Animaliekin esperimentatzearen alde dago Juan Lerma, Espainiako Elkarte Zientifikoaren Konfederazioko lehendakaria. Bere burua definitzen hasi, eta esan digu bera gehiago dela “biologo bataduna eta ez botaduna”. Izan ere, laborategian egiten du bere lana: giza garuna ikertzea. Espainiako Neurozientzia Elkarteko lehendakaria ere bada, eta mendira joatea maite duen arren, etxean sekula ez omen du izan animaliarik. “Inoiz ez dut izan maskotarik, eta asmorik ere ez dut izan”, nabarmendu du. Lermak lan zabal bat koordinatu du, *El uso de animales en la investigación científica* izenekoa (Animalien erabilera ikerkuntza zientifikoan), eta bertan, animaliekin esperimentatzearen alde egiten dute Espainiako zientzialariek (2015eko otsailean argitaratu dute).

**Animalien eskubideek eta gizakien eskubideek berdinak izan behar al dute?** Ez. Animaliek badituzte eskubideak, baina ez dira gizakiok ditugun eskubideen berdinak. Horrek ez du esan nahi ez direla errespetatu, maitatu eta zaindu behar.

**Espainiako zuzenbideak esaten du animaliak gauzak direla.** Bi plano desberdin daude. Bat da lagun egiteko animaliena. Eta bestea, esperimintazioan erabiltzen diren animaliena. Horregatik, legediak ere desberdina izan behar du. Zientzian oso-oso arautua dago animalien erabilera, gizakiak etxeko txakur eta katuekin izan beharreko harremana baino askoz gehiago. Europako araudiak zehaztu egiten du nola tratatu behar diren, nola elikatu eta zaindu; zer-nolako anestesia erabil daitekeen eta nola hil behar diren. Dena dago arautua. Baita esperimintu bakoitzean zenbat animalia erabil daitekeen ere: ez dai-

tezke erabili beharrezkoak diren baino gehiago.

**Beharrezkoa al da animaliekin esperimentatzea zientziak aurrera egin dezan?** Gizarteak eta medikuntza modernoak animaliekin esperimintatu delako iritsi dute gaur egungo ongizate maila. Gaur-gaurkoz, ezinbestekoa da animaliak erabiltzea, batez ere garunaren ikerketan.

**920.000 animalia erabiltzen dira urtean helburu zientifikoekin eta irakaskuntza helburuekin, Nekazaritza Ministerioaren arabera. Animalia horiek babestuta al daude tratu txarren aurka?** Bai. Ez zaie minik egiten: batzorde etiko batek onartu behar du esperimintua. Gainera, animalia zenbat eta garatuagoa izan eta zenbat eta sentiberagoa izan minarekin, hainbat eta zorrotzagoak izaten dira esperimintuaren betebeharrak. Horretaz gain, argitu behar da esperimintazio zientifikoan erabiltzen diren animaliak ez direla kalean hartuak. Gatibutasunean egon diren animaliak dira, helburu horretarako haziak. Norbaitek tximino bat erabiliko badu, ez da oihanera joaten haren bila. Hasteko, laborategiko tximinoek, txakurrek edo katuek askatasunaren inguruan ez dute gizakiok dugun kontzeptua. Eta, gainera, ezagutu ere ez dute egiten. Animaliategi batean jaio den sagu batek kaiola du leku naturala. Animalia horiek, gainera, albaitariak kontrolatzen dituzte eta haiek zaintzen dute ez dezatela sufritu.

**Espainiako zientzialariak animaliekin esperimentatzearen alde agertu dira *El uso de animales en la investigación científica* lanean.** Lan hori egin da ezagutza falta dagoelako eta erantzun egin nahi izan zaielako Europako korrante animalistei, ez baitute nahi animaliekin esperimintatzen

jarraitzea. Lehenik eta behin, argitu egin nahi genuen animaliekin esperimintatzeko araudi zientifiko oso zorrotza dela eta badituela printzipio moralak ere. Bigarrenik, erabiltzen diren animaliak berriaz horretarako haziak direla. Eta, hirugarrenik, ez direla hainbeste eta gero eta gutxiago direla. Zientziak gero eta animalia gutxiago erabiltzen ditu urtetik urtera, teknika berriak sortzen direlako, adibidez, lerro zelularrak.

**Ikertzaileek 920.000 animalia erabili zituzten 2013an, 2009an baino heren bat gutxiago, Nekazaritza Ministerioaren arabera. Babesten al duzu laborategiko animaliak murriztea eta zientziak gero eta gutxiagotan esperimentatzea izaki biziekin?** Erabat. Animaliekin esperimintatzean, hiru arau hartzen ditugu kontuan: animalia kopurua murriztea, erabiltzen diren metodoak fintzea animalien ongizatea hobetzeko eta, ahal bada, hazkuntza zelularrak erabiltzea horien ordez. Zientzialariak egunero saiatzen gara animalia gutxiago erabiltzen.

***El Derecho de los animales* (Animalien eskubidea) lanean, animaliei ematen zaizkien tratu txarrez ari dira filosofoak, juristak eta etologoak, Espainiako lege egoera zein den aztertzen dute eta laborategietan animaliekin egiten diren esperimintuak ere bai. Zer diozu zuk?** Norberak nahi duen sinesmenak eduki ditzake eta horien alde egin dezake. Baina besteenak ere errespetatu egin behar dira, zeren animaliekin esperimintatzea, gaur-gaurkoz, beharrezkoa baita. Eta legearen barrenean jokatu beharra dago. Badira ekintzaile zintzoak, eta hain zintzoak ez diren beste batzuk ere bai.

➤ [www.consumer.es](http://www.consumer.es)

